

‘Gure Jaiak-Nuestras Fiestas’ erakusketa irailaren 20ra arte egongo da zabalik

Montehermoso kulturunean ikusgai dagoen ‘Gure Jaiak-Nuestras fiestas’ erakusketa irailaren 20ra arte egongo da zabalik, Gasteizen aurtengo udan dugun kultura proposamen interesgarrietako bat baita. Asteartetik larunbatera bitartean ikus daitezke, 11.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 21.00etara. Igande eta jaiegunetan, 11.00etatik 14.00etara dago zabalik.

‘Pilar Aróstegui’ Udal Artxiboak antolatutako erakusketa 20 argazki osatzen dute. José Mari Sedanok tradizio gasteiztarrei buruz idatzitako artikulu ugarietatik ateratako testuak jarri dira argazkien osagarri. Horretaz gain, bi proiektzio eskaintzen dira: batean 100 argazki gehiago ikus daitezke; bestean, Gasteizko Udal Artxiboko funts aberats eta interesgarrietako material grafiko eta bibliografikoak.

Ekimen horren bidez, Artxiboa ez ezik, José Mari Sedano kazetaria omendu nahi izan da. Izan ere, joan den otsailean zendu zen gure folkloreak ezagutzaile eta sustatzaile handi hura, zeinak sari eta domina ugari jaso baitzuen gure kulturari egindako ekarpenengatik. San Prudentzio eta Andre Maria Zuriaren jaietako pregoilaria izan zen, eta *Gasteiz* (1958-1997) jaietako aldizkari ilustratuaren fundatzaile eta editorea. Udal Artxiboarekin ere izan zuen loturarik: 1992an Andre Maria Zuriaren jaietako zein zezenketetako 20 kartel (1929-1968) eman zizkion dohaintzan, eta haren alabek egunkari eta bibliografia ondarea eskaini zioten Udalari.

Guztira argazkilari hauen 20 argazki osatzen dute ‘Gure-Jaiak-Nuestras Fiestas’ erakusketa: Santiago Arina, ARQUÉ (Federico Arocena/Gregorio Querejazu), Fernando Ascacibar, José Luis Barroso, Enrique Guinea eta Ceferino Yanguas:

1914-1980

San Prudentzio	5 argazki
Santiago/Blusen Eguna	2 argazki
Andre Maria Zuria	10 argazki
Olarizu	3 argazki

Horietaz gain, proiektzio batean lau jai horietan –San Prudentzio, Santiago/Blusen Eguna, Andre Maria Zuria eta Olarizu– XX. mendean zehar ateratako 100 argazki gehiago ikus daitezke. Hauek dira egileak: Tomás Alfaro, Santiago Arina, ARQUÉ (Federico Arocena/Gregorio Querejazu), José Luis Barroso, José González de Heredia, Enrique Guinea, L&P, José María Parra, Balbino Sobrado, Saturnino Vera-Fajardo eta Ceferino Yanguas.

Beste proiektzio batean, jaiekin lotutako askotariko material grafiko eta bibliografikoak ikus daitezke; horien artean nabarmengarrienak Andre Maria Zuriaren jaietako kartelen bilduma (1890-2015) eta José Mari Sedanok fundatu eta 1958tik 1997ra arte argitaratu zuen *Gasteiz* aldizkariaren azalen bilduma.

La exposición ‘Gure Jaiak-Nuestras Fiestas’ permanecerá abierta hasta el 20 de septiembre

La exposición ‘Gure Jaiak-Nuestras fiestas’ permanecerá abierta en el centro cultural Montehermoso hasta el próximo 20 de septiembre, convirtiéndose así en una de las interesantes propuestas culturales con las que cuenta Vitoria-Gasteiz durante este verano. La muestra se puede visitar de martes a sábado de 11.00 a 14.00 y de 18.00 a 21.00 horas. Y los domingos y festivos, de 11.00 a 14.00 horas.

Producida por el Archivo Municipal ‘Pilar Aróstegui’, esta exposición se compone de 20 fotografías. Estas imágenes están acompañadas de textos firmados por José Mari Sedano extraídos de sus numerosos artículos sobre las tradiciones vitorianas. La exposición la completan dos proyecciones, una de ellas con 100 instantáneas más, y otra con materiales bibliográficos y gráficos procedentes de los ricos e interesantes fondos del Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz.

Mediante esta iniciativa también se homenajea, además de al Archivo, al periodista José Mari Sedano. Este vitoriano fallecido el pasado mes de febrero fue un gran conocedor y promotor de nuestro folklore, y sus aportaciones a nuestra cultura han sido reconocidas a través de múltiples premios y condecoraciones. Fue pregonero de las Fiestas de San Prudencio y de la Virgen Blanca, además de fundador y editor de la revista ilustrada de fiestas *Gasteiz* (1958-1997). Su vinculación con el Archivo Municipal se concreta en la donación en el año 1992 de 20 carteles de Toros y fiestas de la Virgen Blanca (1929-1968) y el ofrecimiento al Ayuntamiento de su legado periodístico y bibliográfico por parte de sus hijas.

En total, la exposición ‘Gure-Jaiak-Nuestras Fiestas’ la componen 20 positivos fotográficos de Santiago Arina, ARQUÉ (Federico Arocena/Gregorio Querejazu), Fernando Ascacibar, José Luis Barroso, Enrique Guinea y Ceferino Yanguas:

1914-1980

San Prudencio	5 fotografías
Santiago/Día del Blusa	2 fotografías
La Blanca	10 fotografías
Olárizu	3 fotografías

Asimismo, una proyección con 100 fotografías relativas a las celebraciones de las cuatro fiestas -San Prudencio, Santiago/Día del Blusa, La Blanca y Olárizu- a lo largo del siglo XX. Sus autores son Tomás Alfaro, Santiago Arina, ARQUÉ (Federico Arocena/Gregorio

Querejazu), José Luis Barroso, José González de Heredia, Enrique Guinea, L&P, José María Parra, Balbino Sobrado, Saturnino Vera-Fajardo, Ceferino Yanguas.

Otra proyección cuenta con diversos materiales bibliográficos y gráficos relativos a las fiestas, entre los que destacan la colección de carteles de fiestas de la Blanca 1890-2015 y la de portadas de la revista Gasteiz, fundada y editada por José Mari Sedano entre los años 1958 y 1997.